

EUSKAL HERRIKO GAZTEAK

Deskribapena: Kike Koldo Mitxelena Institutuko gazteekin elkarrizketatzen ageri da.

Kike: “Zuen ustez zergatik uzten zaio adin batetik gora euskeraz egiteari?”

Lehenengo bikoteko lehenengo neska: “Txikitan errazagoa dela, ez? Ez dakit, lotsatzen gara, edo...”

Bigarren bikoteko lehenengo neska: “Nik uste dut txikitan lagun gehiagokin eta euskera gehiago hitz egiten duzula.”

Hirugarren bikoteko lehenengo mutila: “Gurasoek ba bultzatzen zaituzte horretara, ez? Euskeraz hitz egitera eta ja nagusiagoa egiten zaren heinean ba, uzten diozu agian euskeraz gehiago hitz egiteari.”

Lehenengo neska: “Askotan euskara igual ikusten da umeei hitz egiten zaion hizkuntza bat bezala eta...”

Kike: “Ah bai, eh?”

Bigarren neska: “Eh, jende gehiago ezagutzen dugu, gaztelaniaz gehiago hitz egiten dugu, agian gure ohitura hori delako.”

Bigarren bikoteko bigarren neska: “Familia erdaldunekoa naiz beraz, etxean, ezin det egin baina gero lagun batzuekin bai egiten det eta beste batzuekin ez.”

Lehenengo bikoteko bigarren neska: “Bueno lagun batzuekin beti eta gero etxean ba, betidanik ere ba, euskeraz.”

Lehenengo neska: “Lagun batzuk ditu beraiekin euskeraz hitz egiten dut etxean euskera hitz egiteko ohitura euki dutelako.”

Bigarren neska: “Ba, zergatik ez dugu euskeraz gehiago hitz egiten? Eta orduan ba, hasten gara euskeraz hitz egiten.”

Lehenengo bikoteko lehenengo neska: “Normalean lagun batzuekin bai baino ohituraren arabera.”

Lehenengo bikoteko bigarren neska: “Hasieratik hitz egiten baduzu horrekin euskeraz, hitz egingo duzu beti euskeraz.”

Hirugarren bikoteko bigarren mutila: “Ni adibidez, nire ama hizkuntza izan da gazteleraz, lagunekin eta horrela beti egiten dugu gazteleraz, baina adibidez orain, blusa taldean eta horrela, guztiekin egiten dugu euskeraz.”

Bigarren bikoteko lehenengo neska: “Familia euskalduna daukat eta lagunekin ba, danak euskaldunak garenez, saiatzen gara euskeraz hitz egiten. baina batzutan ere orderara pasatzen gara.”

Hirugarren bikoteko lehenengo mutila: “Nik gurasoekin gehien bat eta euskaldun zaharrak diren beste lagun batzuekin.”

Lehenengo neska: “Aitarekin euskeraz hitz egin izan dut eta ama, bueno, orain ari da euskera ikasten baina beti erdalduna da eta berarekin gazteleraz.”

Deskribapena: Orain Tolosako Laskorain Ikastolako gazteekin ageri da Kike elkarrizketan.

Lehenengo neska: “Gu lagunaren artean, familikokian, dena euskeraz hitz egiten degu, ez? Tolosaldea azkenean eta gure ikastola, Laskorain Ikastola izan da, nik uste dena euskeraz hitz egiten degula eta ez diogula uzten ba, euskeraz iteari, gure adinaren behintzat ez.”

Lehenengo bikoteko lehenengo mutila: “Egia da bai, ume txiki izatetik, beti euskeraz aitzetik, gero heldua pasatzen zean momentun, igual uzten zaiola.”

Lehenengo mutila: “Hemen euskera asko hitz egiten da bai.”

Bigarren bikoteko neska: “Guk kuadrilan eta beti hitz egiten degu euskeraz.”

Lehenengo neska: “Ni behintzat ingurukokian, bai saskibaloien, bai gero etxeraren bai eta lagunekin, azkenen dena euskeraz iten det.”

Lehenengo bikoteko lehenengo mutila: “Ia erabat euskeraz hitz egiten degula, bueno oso ondo ere ez gea moldatzen erderaz ordun ba...”

Lehenengo bikoteko bigarren mutila: “Ez dio inork esaten euskeraz hitz egiteko eta ezer ez eta ordutan utzi iten dioe.”

Bigarren bikoteko mutila: “Famili giron eta euskalduna baldin bada behintzat euskeraz jarraitzen da normalen...”

Lehenengo mutila: “Esan daiteke erdara hitz egiten dudala gaztelerako klasetan bakarrik.”

Bigarren bikoteko neska: “Gure entrenadoreak euskeraz ez daki, baino ulertu iten du, eta ordun, guk beti euskeraz iten diogu beai.”

Deskribapena: Kike Hernaniko Inmakulada Ikastetxean ageri da orain bertako gazteekin hizketan.

Kike: “Eta zuk euskera non egiten duzu gehien, edo nun ez edo nun bai?”

Lehenengo mutila: “Nik batez ere eskolan, andereinoekin eta horrela.”

Lehenengo neska: “Etxean ez, etxean errumaniarrez egiten degu.”

Bigarren neska: “Nere mutil-lagunaren amarekin, kuadrilan gaudenean, pues hitz egiten degu euskeraz eta hola.”

Lehenengo neska: “Etorri nintzenean saiatzen nintzan, baina kostatzen zitzaidan pila bat eta parrezka hasten zian nola ahoskatzen nun eta horrela, eta interesa galdu nun.”

Hirugarren neska: “Batzutan etxean aitakin bakerako eta hola, baina edo lagunekin batzutan eta klasean, euskerako klasean sobre todo.”

Lehenengo neska: “Etxean batzutan nere gurasoak ez ulertzeko euskeraz egiten dut, hemen ikastolan eta kanpoan nere lagun hoberenakin, bera marrokiarra da eta bakarrik euskeraz daki.”

Lehenengo mutila: “Igual batzutan dendetara edo horrelako lekuetan baina oso gutxi.”

Hirugarren neska: “Gazteen artean bai, segun.”

Bigarren neska: “Kanpoko jendea etortzen da eta orduan, ba, klasean pues, gehiago hitz egiten degu erderaz.”

Lehenengo mutila: “Nik txikitan lagunekin eta horrela euskeraz hitz egiten nuen baino pixkanaka-pixkanaka denak hasi ginen erderaz hitz egiten eta ja ohitura daukagu erderaz hitz egiteko.”